



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 17a

19. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, irakaskuntzan hizkuntza-ereduz aldatzea eskatu duten ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, udalek eta federazioek zenbait proiektutarako egin ditzaketen inbertsioak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, N-121 errepidearen Tafallako zeharbidearen azterketa eta jarduketa-aukerei buruzkoa, oinezkoentzat eta bizikleta-erabiltzaileentzat egun dauden arriskuak kentze aldera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Sodenak egindako jarduketa eta inbertsioen emaitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Osasunbidearen organigramaren aldaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, iragarri den Mugikortasun jasangarriari eta Nafarroako garraioaren antolamenduari buruzko foru lege integral baten proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroan Politika Sozialak zertan diren eta horiek hobetzen laguntzeko neurriak aztertzeko eztabaida antolatzeko arauak aldatzea (9. or.).
- KulturAtrio proiektua. Baldintzak eta eskabide-ereduak (10. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Lehendakaritzaren Ebazpena, 2016ko otsailaren 15ekoa, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisitak eta lan bilerak egiteko moduaren gaineko arauak, 2008ko martxoaren 10eko Lehendakaritzaren Ebazpenaren bidez onetsiak, aldatzen dituena (12. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, irakaskuntzan hizkuntza-ereduz aldatzea eskatu duten ikasleei buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, irakaskuntzan hizkuntza-ereduz aldatzea eskatu duten ikasleei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 25eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak aurkeztutako 9-15-PES-00058 informazio eskaerari dagokionez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hizkuntza ereduaren aldaketak ondotik datozen foru aginduen bidez arautzen dira:

– 89/2010 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa, Alberto Catalán Higuera Hezkuntzako kontseila-

riak emana, irakaskuntzako hizkuntza ereduaren aldaketak arautzen dituena.

– 25/2013 Foru Agindua, otsailaren 27koa, José Iribas Sánchez de Boado Hezkuntzako kontseilariak emana. Haren bidez aldatzen da ekainaren 1eko 89/2010 Foru Agindua, irakaskuntzako hizkuntza ereduaren aldaketak arautzen dituena.

Aldaketaren xedea zen arintasuna ematea ereduaren aldatzeko prozesuari, aginduan agertzen den moduan:

“Ereduak aldatzeko arauketaren bidez baime-na ematen zaie ikastetxeei aldaketa egiteko eskaerak ebazteko, araututako kasuetan eta ezarritako epeetan. Ikastetxeek ebazten dituzte aurkeztutako eskaerak. Eskatzaileek zilegi dute administrazioari errekurtsioa aurkeztea, desadostasuna izanez gero. Ikastetxeek EDUCA programan erregistratzen dituzte aldaketak.”

2014-2015 ikasturtean eskatu eta 2015-2016 ikasturtean indarra hartu duten hizkuntza ereduaren aldaketak, eta lehenagoko ikasturtetan eskatutakoak, honako hauek dira:

Hizkuntza ereduz aldatu diren ikasleen bilakaera, 2010-2011 ikasturtetik 2014-2015 ikasturtera.					
	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014	2014-2015*
Eremu euskalduna	4	31	49	40	69
Eremu mistoa	473	948	982	1.030	1.009
Eremu ez-euskalduna	731	615	733	626	595
Guztira	1.208	1.594	1.764	1.696	1.673
A eredutik G eredura	1.067	1.325	1.428	1.412	1.357
G eredutik A eredura	57	135	186	130	135
D eredutik G eredura	23	36	31	36	63
D/B eredutik A eredura	48	70	91	89	92
A/G eredutik D eredura	9	11	12	14	19
D eredutik B eredura edo B eredutik D eredura	0	12	16	14	5
A eredutik B eredura edo B eredutik A eredura	4	5	0	1	2

Iturria: EDUCA- Euskara Atala

*Ereduz aldatzeko eskaerak eskolatzeko epe arruntean (otsaila) eta berezian (iraila) egiten dira, eta hurrengo ikasturtean hartzen dute indarra.

2010. urtetik aurrera hizkuntza eredua aldatzeko prozesuak duen bilakaera dela eta, ezin ditugu zehaztu ez aipatu aldaketan kasuak, ezta aurkeztutako eskaerei dagokienez zenbat onartu diren ere, ikastetxeen esku dagoelako eskatzeko eta baimentzeko prozesu osoa.

Iruñean, 2015eko urriaren 22an

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, udalek eta federazioek zenbait proiektutarako egin ditzaketen inbertsioak egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Luis Casado Oliver jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, udalek eta federazioek zenbait proiektutarako egin ditzaketen inbertsioak egiteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 25ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko irailaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Luis Casado Oliver jaunak idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu du, futboleko kirol apustuetatik heldu den dirua futbol ez profesionalari banatzeari buruzkoa (9-15/PES-00060). Hona erantzuna:

2015eko ekainaren 17an lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten Kirolaren Kontseilu Nagusiak (KKN) eta Espainiako Futboleko Errege Federazioak (EFEF), futbol ez profesionalari banatzeko jokoaren gaineko zergaren diru-bilketan futboleko kirol apustuetatik heldu denaren ehuneko 4,55.

Funts horien kargura finantzatzen ahal dira udalen edo federazioen titulartasuneko instalazioak eraiki, hobetu, zaindu, handitu edo berritzeko jarduketa guztiak, aipatu instalazioetan futbol ez profesionala sustatzeko jarduerak egiten badira.

Proiektuak 2015eko irailaren 1a baino lehen aurkeztu behar ziren EFEF edo KKN erakundeetako erregistroan.

Jarraipen batzorde bat eratu zen, bi erakunde-erako ordezkariak osatua, hitzarmenaren ildotik garatzen diren jarduerak ezagutu, onetsi eta gainbegiratzeko. Aipatu batzordeak egiten du aurkeztu diren proiektuen balorazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko Kirol Administrazioak ez daki ezer aurkeztutako proiektuei buruz, eta ez du informaziorik jaso. Horrenbestez, ezin da jakin zenbat proiektu aurkeztu duten udalek edo federazioak, baina aipatu behar da Nafarroako Futbol Federazioak ez duela futboleko kirol instalazioen inongo titulartasunik.

Era berean, ezin da informaziorik eman aurkeztu diren proiektuen zerrendari edo kopuruari buruz.

Nafarroako Gobernua 2016ko aurrekontuak prestatzeko azterketa fasean dagoenez, ezin du oraindik bere iritzia eman KKNren eta EFEFen arteko lankidetzeta-hitzarmenaren jarraipen batzordeak onesten dituen proiektuei eman dakiekeen laguntza ekonomikoari buruz.

Hori guztia jakinarazten dizut.

Iruñean, 2015eko irailaren 24an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

Galdera, N-121 errepidearen Tafallako zeharbidearen azterketa eta jarduketa-aukerei buruzkoa, oinezkoentzat eta bizikleta-erabiltzaileentzat egun dauden arriskuak kentze aldera.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, N-121 errepidearen Tafallako zeharbidearen azterketa eta jarduketa-aukerei buruzkoa, oinezkoentzat eta bizikleta-erabiltzaileentzat egun dauden arriskuak kentze aldera. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 25eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Garapen Ekonomikorako kontseilariak, behean sinatzen duenak, EH Bildu Nafarroa parlamentutaldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderari (PES 00061), Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondotik datorren erantzuna eman dio:

Galdera

“Parlamentari honek jakin nahi du ea Nafarroako Gobernuak zer azterlan- eta jarduketa-aukera darabiltzan gogoan N-121 errepideko Tafallako zeharbideari dagokionez –Recoletasko eraikinaren parean–, oinezkoek eta txirrindulariek egun bizi dituzten arriskuak kentze aldera”

Erantzuna

Galderan aipatzen den “N-121 errepideko Tafallako zeharbidea, Recoletasko eraikinaren parean” NA-8607 (II) zeharbidea da, gutxi gorabehera 4+800 kilometro puntutik 4+900 kilometro punturako tartean. Bertara iristen da, halaber, Lizarra-Tafalla-Zangoza NA-132 errepideko zeharbidea.

Aipatu tarteko galtzadako aldeetan eraikinak daude; horietako batzuk ondare balio handikoak dira, eta guztiek 6,00-6,50 metrora mugatzen dute galtzadako zabalera. Ez da toki nahikorik gelditzen bazterbide, bide edo espaloirik egiteko, oinezkoak edo txirrindulariak segurtasunarekin eta gainerako ibilgailuetatik aparte ibiltzeko moduan eta ibilgailu horien ohiko zirkulazioari eragin gabe.

Galtzadak, toki estuenean, bi errei eta bi espaloitu; errei bakoitzak 3,00 metroko zabalera du,

eta espaloitu bakoitzak, berriz, 0,30 metrokoa. Eta ez dago bazterbiderik.

Oinplanoko lerrokadurak alde batera utzita, kontuan hartu behar den beste alderdi negatibo bat da galiboaren altuerako muga, 4+830 kilometro puntuan eraikinak lotzen dituen arku beheartuari dagokiona.

Hala ere, nahiz eta aipatu tartekak izaera berezia duen, atestatua duten istripuen datu-basean, Zainketa Zerbitzuan biltzen den horretan, 2009ko urtarrilaren 1etik 2015eko irailaren 30era bitartean istripu bakarra jaso da, biktimarik izan ez zuena; 2014ko abenduaren 21ean 4+800 kilometro puntuan gertatutako alboko talka izan zen.

2014ko uztailaren 16an (2014/364.704 espediente) Tafallako Udalak orduan zen Sustapen Departamentuari eskatu zion aukera eman zezan Recoletasko komentuko fatxadako espaloitu tarte bat kendu, beste aldeko espaloitu tarte metro bate-raino zabaldu eta semaforo sinkronizatuak jartzeko Tuterako etorbidean, Hortanco kalearen eta ospitale zaharraren parean. Hasieran ahoz eta geroago idatziz (2015eko uztailaren 29an) eman zen erantzunean adierazten zen eskatutako jarduketak ezin zirela baimendu bide-segurtasuna zela eta.

Izan ere, NA-8607 errepidean eguneko batez besteko intentsitatea 4.768 ibilgailukoa da, haietako 161 astunak baitira, eta NA-132 errepidean 1.715 ibilgailukoa, haietako 127 astunak. Kontuan harturik trafikoaren intentsitatea eta aipatu zeharbideen trazadurak, oinplanokoak zein altxaerakoak, bi zeharbideetan baitago galiboa mugatzen duen arku bat, ez da komenigarria, departamentu honen eskumen esparruan, galtzada estutzea, semaforoak jartzea eta gisako neurri puntualak hartzea.

Horiek horrela, eta azaldu denagatik, departamentu honek ez du kontuan hartu azterlanik edo jarduketarik egitea NA-8607 zeharbideko galtzadaren egungo eraketa aldatzeko, dagokion titulartasunaren esparruan, izan ere, Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legeak eta Nafarroako errepide sareko zeharbideak eta haiek berritzeko obrak egiteko prozedura arautzen dituen martxoaren 10eko 154/1999 Foru Dekretuak ezartzen dutenaren arabera, zeharbi-

deen titulartasuna Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari baitagokio, eta titulartasuna mugatzen da ibilgailuen zirkulaziorako prestatutako zoruaren eremura eta, baldin badaude, bide bazterretara.

Gure ustez, indarra duen araudia ikusita, Tafallako Udalak azterlanak edo jarduketak egin ditzake, zeharbidean oinezkoek eta txirrindulariek izan ditzaketan arriskuak kentze aldera. Gogoratu behar dugu zer dioen horri buruz maiatzaren 20ko 2015/1999 Foru Aginduak, Eraikuntzako konzeptuak eta Nafarroako Errepideen Sareko tokian tokiko zeharbideak egokitu eta hobetzeko obretan Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak (gaur egun Garapen Ekonomikorako Departamentua) finantza ditzakeen ehunekoak zehazten dituenak:

“Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ez ditu finantzatuko ondasun edo eskubi-

deen erosketa edo ukipenari buruzko kapituluak, ez eta toki entitatea edo bestelako entitateak titular bakarra dituzten obrak ere, horien artean:

- Eremu zolatuak, zeharbidekoak ez direnak; bestelako bide, aparkaleku edo zelaiuneak; espaloiak; hondakin uretako estoldak; euriko uraren zati finantzaezina; edateko eta ureztatzeko uraren sarea; hariteria publikoaren kanalizazio eta instalazioak (bataz beste egunean hamar mila ibilgailutik goitiko trinkotasuna duten zeharbideak izan ezik), telefonia, telekomunikazioak, gasa eta beste batzuk; etxebizitza, etxabe, lokal eta garajeetako sarbideak; lorezaintza; hirietako altzariak; toki entitateak ez bestek darabiltzan hesi, babes eta seinale horizontal eta bertikalak; oinezkoen pasabideetarako zirkulazio-argiak eta antzeko guztiak.”

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Sodenak egindako jarduketa eta inbertsioen emaitzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sodenak egindako jarduketa eta inbertsioen emaitzei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 25eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, 1256 sarrera-zenbakia eta 9-15/PES-00062 espediente zenbakia dituen, Sodenaren jarduerari buruzko informazioa eskatzeko. Galdera horri erantzunez, Garapen Ekonomikorako kontseilariak, behean sinatzen duenak, erantsitako dokumentazioa igorri dio.

Nabarmendu nahi da Sodenak argitu duela Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren (2007ko 138. NAO, azaroaren 5ekoa) 14.2 artikulua betez ematen dela informazioa. Artikulu horren

arabera, parlamentariak, beren eginkizunak hobeki betetzeko, zilegi dute sozietate publikoei datu, txosten edo administrazio-dokumentuak eskatzea, baldin eta horiek ezagutzearekin urratzen ez badira datu pertsonalak babeste aldera legez ezarritako bermeak.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan izanik erantzun honetan ematen diren datuak hirugarrenei buruzkoak eta konfidentzialak direla eta datuok zabaltzeak eragina izan dezakeela haien merkataritza eta industria jardueran, gogorarazten da Parlamentuko xedeetarako soilik erabili behar dela emandako informazioa eta ez dela inola ere argitaratu behar.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko, jakin dezazun eta behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2015eko urriaren 21ean

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman.)

Galdera, Osasunbidearen organigramaren aldaketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasunbidearen organigramaren aldaketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 25eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko galdera egin du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren organigrama berriari eta onetsitako izendapenei buruzko informazioa eskatzeko (PES00063). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Zure hasierako bi galderei erantzuteko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzailearen proposamen-txosten bat igortzen dizut.

Txosten hori sartuta dago Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren estatutuak ezartzen dituen foru dekretua onesteko administrazio-espedientean, eta bertan egituraren egindako aldaketak eta aldaketa horiek oinarritu eta justifikatu dituzten arrazoiak jasotzen dira.

Bukaeran egiten duzun eskaerari erantzuteko, agiri bat igortzen dizut, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren estatutuaren jasotako oraingo egitura biltzen duena, eta horrekin batera, unitate organiko bakoitza betetzen duten pertsonak eta haien izendapeneko data eta izendatzeko egintza ere bai.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 6an.

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Agora sisteman.)

Galdera, iragarri den Mugikortasun jasangarriari eta Nafarroako garraioaren antolamenduari buruzko foru lege integral baten proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, iragarri den Mugikortasun jasangarriari eta Nafarroako garraioaren antolamenduari buruzko foru lege integral baten proiektuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko irailaren 25eo 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu du (9-15/PES-00064). Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako mugikortasun eramangarriari eta garraioaren antolamenduari buruzko Foru Lege Integral berri baten proposamena joan den irailaren 15ean Parlamentuan egindako agerraldian aipatu zen, Departamentuak 2015-2019 legegintzaldirako dituen ildo estrategikoen aurkezpenean. Proposamen hori sartuta dago Nafarroako Gobernuari legegintzaldi honetarako babesa ematen dioten indar politikoek (Geroa Bai, EH Bildu Nafa-

rroa, Podemos-Ahal Dugu eta Ezkerria-Ezkerra) sinatutako programa-akordioan.

Akordioan jasotzen da Nafarroako mugikortasun eramangarriari eta garraioaren antolamenduari buruzko Foru Lege Integral bat idatzi eta onartzea, gizarte zibilaren parte-hartze aktiboa eta loteslea izanen duena. Horrek beharrezko ekintza-plana gauzatzea beharko du, bere eraginkortasuna neurtzeko adierazleak dituena eta gaur egungo nafar gizartean dagoen aniztasun funtzionalerako mugikortasuna bermatzen duena.

Orain Garapen Ekonomikorako Departamentua murgilduta dago 2015-2019 legegintzaldirako ekintza-plana eta dagokion kronograma garatzeko eta prestatzeko prozesuan. Hartara, Mugikortasun eramangarriari eta garraioaren antolamenduari buruzko Lege Integral berriaren proiektua oraindik ez da neurri handian garatu, eta, beraz, ezin zaio galderari erantzun erregistratutako ekimenean eskatzen den xehetasun mailarekin.

Hemendik gutxira, ekintza-plana eta bere kronograma bukatuta daudenean, erantzuna emanen diegu 9-15/PES-00064 galderan egin dituzun gai zehatzei.

Hori guztia jakinarazten dizut, jakin dezazun eta behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2015eko urriaren 16an.

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroan Politika Sozialak zertan diren eta horiek hobetzen laguntzeko neurriak aztertzeko eztabaida antolatzeko arauak aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Onestea Nafarroan Politika Sozialak zertan diren eta horiek hobetzen laguntzeko neurriak aztertzeko eztabaida antolatzeko arauen aldaketa, zeinak 2015eko urriaren 26ko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi ziren (23. NPAO, 2015-10-30ekoa). Jarraian zehazten dira:

“1. Eztabaida hasiko da Osoko Bilkura monografikoa proposatu duen parlamentu-taldearen edo foru parlamentarien elkartearen eledunaren mintzaldiarekin, eta horrek, gehienez ere, hogeimitu iraunen du.

Ondoren, eskatzen duten gainerako parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkartearen eledunak mintzatuko dira, eta denbora-tarte bera izanen dute. Mintzaldien hurrenkera kideen kopuruari begira ezarriko da, gehien dituztenetik hasi eta gutxien dituztenekin bukatzeko.

Aurreko txanda bukatuta, Nafarroako Gobernuaren ordezkari bat mintzatzen ahalko da, eztabaidagai diren gaien inguruko bere jarrera azaltze aldera, iraupen berarekin.

2. Mintzaldi horiek bukatuta, bilkura ordubetez etenen da, eta Mahaiari erabaki proposamenak aurkezteko epe bat irekiko da. Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak gehienez ere bost erabaki proposamen aurkezten ahalko ditu, eztabaidagaiarekin zuzeneko zerikusia izanen dutenak. Proposamenak posta elektronikoren bidez bidali beharko zaizkio Zerbitzu Orokorretako buruari bilkura eten eta hamabost minutu-

ko epean, eta, aldi berean, horrek Mahaiko kideei emanen dizkie.

Jarraian, ondoko hamabost minutuetan, Mahaiak proposamenak onartuko ditu, eta parlamentu-taldean edo foru parlamentarien elkartearen eledunei helaraziko zaizkie, zeinek hogeita hamar minutu izanen baitituzte proposamenak aztertzeko.

3. Bilkura berriro hasten denean, onarturiko proposamenak batera defendatuko dira, gehienez ere hamar minutuz, 1. arauan ezarritako eztabaida-hurrenkerari jarraituz, eta eledunek haien iritzia emanen dute, halaber, gainontzeko parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarteek aurkezturikoen inguruan.

Eztabaida bitartean, lehendakariak izapidera onartzen ahalko ditu in voce zuzenketak, baldin eta haien xedea errakuntza eta akats teknikoak zein terminologiakoak edo gramatikakoak zuzentzea baldin bada. Gainerakoan, soilik inongo parlamentu-talderik edo foru parlamentarien elkarterik aurka azaltzen ez bada onartzen ahalko dira zuzenketa horiek.

4. Proposamenen eztabaida amaiturik, 1. arauan adierazi aurkezpen-hurrenkerari jarraituz bozkatuko dira. Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak egindako proposamenak batera bozkatuko dira. Halere, edozein eledunek hala eskaturik, aparte bozkatzen ahalko dira”

2. Agintzea arau horiek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezten

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

KulturAtrio proiektua.

BALDINTZAK ETA ESKABIDE-EREDUAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruak eta Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoek KulturAtrio proiektua abian jartzeko proposamenari buruz egindako txostena eta Kontu-hartzaileak egindako txostena, honako ERABAKI DA:

1. Onestea KulturAtrio proiektua, Nafarroako Parlamentuko atalondoa erakusketak egiteko baldintzak eta atalondoa erabiltzeko eskabide-eredua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an.

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko atalondoa erakusketak egiteko bete beharreko baldintzak

1. Erakusketen xedea:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak erakusketak egiteko baimena ematearen xede bakarra izanen da lana jendarteratzea eta ezagutaraztea, Parlamentuak artistei beren lana ezagutzera ematen lagundu nahi baitie. Erakusketak irauten duen bitartean ez da inolaz ere eginen artelanak saldu eta erosteko operaziorik.

2. Garraioa eta aseguruak:

Erakusketa-egilearen kontura izanen dira obra garraiatzea, bidaltzea, muntatzea, desmuntatzea eta itzultzea, bai eta horien ondoriozko gastuak ere, non eta obraren interesak besterik aholkatzen ez duen eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak besterik erabakitzen ez duen. Erakusketa-egileak, halaber, artelanen aseguruak egin ahalko du egoki irizten badio, eta hori ere bere kontura egin behar du. Nafarroako Parlamentuko langileek gainbegiratura eta ohiko lanaldiaren barruan eginen dira lan horiek.

3. Erantzukizuna:

Nafarroako Parlamentuak ez du erantzukizunik hartzen artelanak osorik edo partzialki hondatzea ekar dezaketen istripu, lapurreta, sute, katastrofe eta abar direla-eta gerta litezkeen kalteen kasuan.

Erakusketa-egileak erantzukizun orotatik salbuesten du Nafarroako Parlamentua, egin beharreko jardueraren garapenean eragin lezaketan inguruabar eta gorabeherak direla-eta, eta espresuki uko egiten dio Legebiltzar honen aitzinean balia litzakeen ekintzak abiarazteari, bai eta, kasua balitz, kalte-galerak eskatzeari ere.

4. Segurtasuna:

Erakusketa-egileak, Parlamentuak alde aurretik baimena emanda, egoki irizitako segurtasun neurriak hartzen ahalko ditu bere kargura. Erakusketa-egileak bere gain hartuko du oso-osorik arlo horretan sor litekeen edozein gorabehera, eta Parlamentuak ez du inolako kalte-ordainik ordaindu behar izanen kalte-galerak direla-eta.

Parlamentuko atalondoa zaintza-kamera bat dago, irudiak grabatzeko sistema eta guzti, zeinak baliatu ahalko baitira erakusketak dirauen bitartean gorabeherarik gertatzen bada.

5. Muntaketa eta artelana

Erakusketa-egilea behartuta dago pertsonalki edo behar bezala kreditatutako bere konfiantzazko pertsona baten bidez arduratzera erakusketa muntatu eta desmuntatzeaz. Ezin izanen da erabili horretan kalte egin dezakeen materialik (iltzerik, txintxetarik, itsasgarririk...), ez eta atalondoa dekorazioa eta altzariak aldatu ere, Nafarroako Parlamentuaren baimen espresik gabe.

Nafarroako Parlamentuak beretzat gordetzen du erakusketa batek irauten duen bitartean atalondoa Legebiltzarrearen berezko jarduerak egiteko ahalmena; halatan, beharrezkoa balitz, erakusketako lanak lekuz alda litezke aldi baterako. Aldi baterako lekualdaketa hori erakusketa-egileak bere kontura eta ardurapean egin behar du, Legebiltzarreko zerbitzuek alde aurretik ohartarazitara.

6. Erakusketen ordutegia:

Erakusketak honako ordutegi honetan eginen dira, ahal dela: astelehenerdik ostiralera, 10:00etatik 20:00etara; eta larunbatetan, 11:30etik 14:00etara.

7. Publizitatea:

Nafarroako Parlamentuak txartel bat eta afixa bat eginen ditu, osoki bere kargura, erakusketa iragartzeko, egoki irizitako moduan eta erakusketa-egilearekin adostuta.

Nafarroako Parlamentuak bere gain hartuko ditu erakusketaren aurkezpena eta zabalkundea egitea Webgunearen eta sare sozialen bidez.

Erakusketa-egileak publizitate osagarria egiten ahalko du, bere kontura, Nafarroako Parlamentuarekiko koordinazioan.

NAFARROAKO PARLAMENTUKO ATALONDOA ERAKUSKETETARAKO ERABILTZEKO ESKABIDEA

Izena: _____

NANA: _____

Helbidea: _____

Telefono zenbakia: _____

Posta elektronikoa: _____

NAFARROAKO PARLAMENTUKO MAHAIARI ESKATZEN DIOT BAIMENA EMAN DIEZADAN NIRE ARTELANEN LAGIN BAT ATALONDOAN ERAKUSTEKO

Erakusketaren data zehatza eta orduak: _____

Jardueraren garapenaz arduratuko den pertsona fisikoaren izen-abizenak: _____

Honekin batera, honako eduki hau zehazten da:

- Nolako lana jarri nahi den erakusgai
- Zenbat lan jarri nahi diren erakusgai
- Lanen gehieneko eta gutxieneko neurriak
- Lan bakoitzaren ezaugarri teknikoen azalpena
- Erakusgai jarri nahi den lanaren argazki-dosierria
- Bestelako ohar batzuk

Honen bidez deklaritzen dut erakusketa egiteko baldintza guzti-guztiak –eranskinean ageri dira– ezagutzen ditudala, eta eskabide hau onartzen bada horiek guztiak onartzeko konpromisoa hartzen dut.

_____(e)n, 2016ko _____aren _____(e)(a)n.

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Lehendakaritzaren Ebazpena, 2016ko otsailaren 15ekoa, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisitak eta lan bilerak egiteko moduaren gaineko arauak, 2008ko martxoaren 10eko Lehendakari-tzaren Ebazpenaren bidez onetsiak, aldatzen dituenak.

Parlamentu-taldeen kopuruari dagokionez, Parlamentuaren egungo osaerak lan bileren arauak egokitzea eskatzen du, mintzaldiak luzeegiak izan ez daitezzen horiek arautze aldera.

Horretarako, Eledunen Batzarrak alde aurretik erabakia hartuta eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 40.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, EBATZI DUT:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisiten eta lan bileren arauetako lehenaren 5. idatz-zatiaren b) eta c) letrak aldatzea. Hona hemen testu berria:

“b) Bilera kasuko batzordeko buruak zuzenduko duela. Hark, eskatzailearen mintzaldiaren ondoren, hitza emanen die agerraldia egin behar dutenei, agerraldiaren xede den informazioa eman dezaten hoge minutuko gehieneko aldian, eta

ondoren batzordeko kideek izanen dute hitza, galderak egin edo haien jarrera azaltzeko bost minutuko gehieneko aldian. Agerraldia egiten ari direnek hamar minutuko gehieneko aldian emandako erantzunarekin bukatuko da bilera, baina hori ez da eragozpen izanen Batzordeko buruak, egoki iriziz gero, hitz egiteko beste txanda bat abiaraz dezan.

c) Agerraldia egiten dutenak ez direla bost baino gehiago izanen.”

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisiten eta lan bileren arauen aldaketa hau indarrean sartuko da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznarez Igartzak